

**BADAKIT**

Badakit ez ditudala azkazalak jan behar,

baina nire nerbio-sistemak

neuronak martxan jartzen ditu

jan behar ez ditudan azkazalak

behin eta berriz jan ditzadan.

Urduritasunaren uzta emankorrak dira

nire azkazaletan agertzen diren

forma sinusoidalak.

Badakit ez ditudala azkazalak jan behar,

eta odoletan utzi ditut berriro

ezker letagina gehiegi sartu eta gero.

Ordenagailuaren aurrean nago

nire hamar hatz kamutsekin

bertako klabierra aztoratu nahian,

dazkidanak (eta ez dazkidanak) idatziz...

Eta ohartzerako ni naiz aztoratu dena

zu azaldu zaren lehen olerkian

azkazal dosi gabe gelditu naizelako.

Azkazalak bakean utzi behar ditudala dakidan arren,

azken hozka bat ematen diet

(zuri emango nizukeen eran)

bihar haziko diren esperantzarekin...

**Badakit** zer egin behar den

margarita bat ustel ez dadin,

baina udazkenean beti usteltzen zaizkit

udako amodio sutsuak bezala

bero giroan ederki moldatzen dira,

baina hotz kirri bat iritsi orduko

agur batentzat ere ez dago astirik.

Badakit zer egin behar den

margarita bat ustel ez dadin,

baina petaloak banan-banan kentzen dizkiot

"maite nau, ez nau maite" lelopean

eta beti irtetzen zait ez nauzula maite...

Agian, horregatik usteltzen zait,

nahiz eta badakidan zer egin

margaritarik udazkenean ez usteltzeko.

Eta ni usteltzen hasi aurretik,  
hasi beharko naiz nire burua zaintzen  
udazkena garai ederra baita zerotik hasteko  
hostorik gabeko arbolen eran,  
adar biluziak kimatu eta negu gorrian iraun  
geroko eguzki printzetan goxo loratzeko.  
eta margaritarik nola ez usteldu jakinagatik,  
galdetuko diot margarita berriari,  
udaberria iristean,  
ea maite nauzun...

**Badakit nola lotu behar ditudan oinetakoak**

lokarriak ez daitezen askatu

lokartzeko garaia heldu arte:

Bi lazo handi zirimolatuz,

itsas korda baten eran,

eta azkenik beste bira bat.

**Badakit nola lotu behar ditudan oinetakoak**

lokarriak ez daitezen askatu

ezkaratzeko azken eskilara igo arte,  
baina behin eta berriro egiten dute topo  
nire lokarri iraultzaileek  
nire oinetakoen zolekin...  
eta iraultza guzti honen baitan,  
berriz ere, estropezu egin dut  
ezpainak lurraren aurka urratuz.  
Askatasuna lortzeko iraultzaile oro  
sentitu behar ei da zapaldua,  
baina gaurkoan,  
oinetakoak lotzen badakidan arren,  
nire lokarriei ez diet askatasunik ukatuko...

**“Badakit** musean jokutzen” esan nizun,  
nahiz eta ez dakidan zenbat garbantzua ale  
utzi behar ditudan tapizaren korderrean...

32 Keinu egin behar dizudala esaten didazu  
eskuan sorta ederra daukadanean...  
eta musa gezurtienek irabazten badute,

txapelaren musak izateko jaió gara.

"Badakit musean jokutzen" esan nizun,

museko bikote bila zeundenean,

baina zure musuen bikote izan nahi dut

nire karta onenak ohean jokatuz

hordago guztiak onartzen dizkidazun bitartean...

Dena galtzeko prest bainago,

egiak ezpainetatik ihes egiten didanean...

eta musean nekiela esan nizun arren,

nire gezur eta egiekin

bizitza jolas baten moduan jokatzen dut...

**Badakit** ezin dudala oinutsik ibili

odoletan bukatuko dudalako

kristalik kamutsenak suertatuta ere,

baina gustura ibiltzen naiz oinutsik

(udaberriko soropil orlegietan,

udako erreka gardenetan,

udazkeneko hosto-alfonbretan,

neguko lur izoztuetan...)

zoriontasuna ukitzen.

Badakit ezin dudala oinutsik ibili,

baina jada ez daude armairuan

bikoterik gabeko galtzerdi bakartiak

hauek ere halabeharrez ezkondu dira

munduko hamaika txokotan neskatilak

ezkonarazten dituzten bezala.

Ni ere ezkonduko nintzateke

oinutsik nagoeneko zoriontasuna

zurekin elkarbanatzeko,

baina zuk nahiago dituzu hatzak hutsik eduki

eraztunak gorrotu dituzula erantzunda.

Oinutsik ibili ezin naitekela jakin arren,

bi oinak lurrera josten dizkidazu...

**Badakit** hitzak haizeak daramatzala

horregatik, idatzi ditut berun tintaz,

orri zuri honetan sekula idatzi gabeak...

eta inoiz haizeak orriok eramaten baditu,  
hari fin batetik lotuko ditut lehenago  
kometa baten moduan hegan egin dezaten  
haizeak berarekin eraman nahi eta  
nik gelditzeko esaten diedan bitartean.  
Badakit hitzak haizeak daramatzala  
horregatik, irekitzen dut ahoa  
behar baino gehiago,  
baina nik gustura helbideratuko nizkizuke  
inoiz nire ahotik entzun gabeak,  
barruak isiltzera behartu arren,  
mingainak ezin dira izoztu.  
Normaltzat hartzen dugu,  
benetan esan behar direnak,  
esateko gai ez izatea.  
Beraz, olerki hauek idatzi dizkizut,  
haizeak eramango dituela dakidan arren,  
ohartu zaitezzen  
azkazalekin ala azkazalik gabe,



oinutsik ala oinetakoekin,

udazkenean ala udaberrian,

musean ala musuka,

egitan ala gezurretan

maite zaitudala,

baina zu oharzerako

beste maite zaitut bat

eraman du haizeak...

